

laister berri



Bessuango udala

163 | AZAROA 2007

001

AURKEZPENA

002

ESKOLA AGENDA 21

003

AISIALDIA

004

LED TEKNOLOGIA

005

LIBURU AZOKA

006

HAUR-PARKEA

007

KONTZERTUA

008

GOIENIZ

010

EKINTZAK

laister berri

AURKEZPENA

KALE HEZITZAILEAK

Ingurune Irekiko Programa Beasainen 2000ko urtarri-lean abiatu zen; bere helburua, 11 eta 19 urte bitarteko beasaindar gazteen aisia eta bizi prozesuan laguntzea da, bai beren bizitza egiten duten inguruneetan, hau da, eskolan, lagun taldean, familian, gizartean etab, bai herrian dauden baliabideetan. Ordutik bi kale hezitzaile ari dira lanean lanaldi erdian eta beraien lan esparrua kalea da.

Programa hau Udaleko Gizarte Ongizate Saileko prebentzio programetako bat da; programa honek, logikoa den bezala, lan egingo den nerabe eta gazteen bizitzarekin zerikusia duten gizarte-eragile eta Zerbitzu Sistema guztiekin lan koordinatua egitea eskatzen du, hau da: hezkuntza sistema, osasun sistema, kultura eta gazteria sailak, udaltzaingoa etab. Bestalde, herriko baliabideekin elkarlana behar beharrezkoa da.

8 urte hauetan egindako lana eta emaitzak positiboak dira, eta prebentzio programa hau gazte eta nerabe kopuru handiagorengana iristeko asmoz, Udalak programa zabaltzea erabaki du 2008ko urtariletik aurrera, kale hezitzaileen lanaldiak zabalduz.



laister berri

Diseinua:

ah_comunicación

Maketazioa:

ah_comunicación

Erredakzioa:

ah_comunicación

Publizitatea:

ah_comunicación

Imprimaketa:

Gráficas

San Martín C.B.

Lege Gordailua:

SS-654/96

Erredakzioa

helbidea:

Martina

Maiz 3/2.

bulegoa

T 943 882 257

F 943 027 639

E ah@clickah.com

Beasaingo Kultura Batzordeak aldizkari honen 6.500 ale banatzen ditu hilabetero Beasaingo postontzietan.

Eragilea:

kultura saila



Beasaingo udala



2006-2007 kurtsoan Eskola Agenda 21aren barruan Beasaingo Ikastetxeetan hondakinen gaia landu da eta kurtso amaieran ikasleek gaiari loturiko hainbat eskaera eta proposamen egin dizkie udalari. Udala, eskaera hauei erantzun bat emateko, azaroaren 6an Beasaingo Ikastetxeekin elkartu da, udaletxeko areto nagusian. Bertan, Eskola Agenda 21a bideratu duen aholkularia eta CEIDAKo arduraduna zeuden.

Eskaera sortari erantzun bat emanez hasi du bilera Beasaingo alkatea den Patxi Plazaolak. Zaborren kudeaketaren inguruko eskaerei erantzunez, Iñaki Erauskin, Sasietako arduraduna aritu da. Erantzun hauen aurrean zituzten desadostasunak azaltzeaz gain, ikastetxe ezberdinetako ikasleek kurtsoan zehar egin duten lana azaldu dute. Era berean, Eskola Agenda 21eko teknikariak (Artelatz), datorren kurtsoan landuko duten gaia Ura izanik aurreikusten diren ekintzen programaren inguruko azalpenak eman ditu. Alkateak, era berean, aurreko kurtsoan eginiko ekintzak eta datorren urtera begira ere aurrera eraman nahi diren ekintzak azaldu ditu, eta ekintza hauekin ikasleen eskakizunei erantzun bat emateko konpromezua hartu du. Besteak beste, udalak merkatu txiki baten antolaketarako laguntza eskeiniko dutela adierazi du, publizitatea murrizteko ahaleginetan ikastetxeek sortuko luketen ikur baten banaketa egingo luketela, txakurren kakentzako 10 edukiontzi gehiago jartzeko konpromezua hartu du eta eguberrietako argi kontsumoa jaisteko ahaleginak egingo dituztela ere azaldu du alkateak.

laister berri

AISIALDIRAKO ESKAINTZA

HAUR ETA GAZTETXOEN AISIALDIRAKO ESKAINTZA

Udal ludotekak:

Beasaingo haur eta gaztetxoek eskola orduz kanpo elkarren arteko harremanak garatzeko eta euskaraz jarduteko eskaintza egokia dute Berritsu eta Txelotxe Udal Ludoteketan. Astelehenetik ostiralera arratsaldeko 16:30etik 20:00etara eskaintzen da zerbitzua eta aurtengo ikasturtean 128 haur eta gaztetxok eman dute izena. Bertan jolas-jarduera asko antolatzen dituzte: jolas librea, mahai-jokoak, txangoak, jostailuen mailegu zerbitzua, jostailu hezitzaileen erakusketa,... Abenduan, 9 urtetik 12ra bitarteko haur eta gaztetxoentzat ekintza bereziak antolatuko dituzte eta egun horietan libre izango dute ludotekak barrutik ezagutzeko.

Bertso Eskola.

Dagoeneko bete da Udalak jarritako helburua, urriaz geroztik martxan da Bertso Eskola. 17 haur eta gaztetxok eman dute izena. Bitaldetan banatu dira eta Ainhoa Mujikak eta Igor Egurenak zuzentzen dituzte klaseak. Astearte eta asteazkenetan ematen dira klaseak.

Gaztegunea

Zerbitzu hori Gipuzkoa Plazako Urbieta etxean dago eta 2006ko otsailean inauguratu zen. Gazteak elkar ezagutzeko eta elkarrekin ondo pasatzeko gune izateko sortu da. Gazteguneko zerbitzuak eta jarduerak 12 urtetik 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude. Irailaz geroztik 60-70 gaztetxo bildu ohi dira asteburuero, 12 eta 15 urte bitartekoak gehienetan. Lokal horretan joko gunea izateaz gain, (ping-pong, mahai-jokoak, futbolina, intemeterako sarbidea eta abar) tailerrak, hitzaldiak, txangoak eta abar antolatzen dira, guztiak Beasaingo gazteei zuzenduak. Asteko bi egunetan ematen da zerbitzua, larunbateetan eta igandeetan arratsaldeko 4:30etik 8:30era.

laister berri

LED TEKNOLOGIA

Beasingo Udalak energia aurreztuko du semaforoetan jarri berri den led teknologiarekin. Teknologia berri honi esker energiaren %90a aurreztuko da, kostuek ere behera egingo dute eta segurtasun handiagoa eskainiko da semaforen argiterian.

Guztira 22.419,97€tako inbertsioa egin du udalak argiteria aldatzeko. Inbertsio honi esker 47.310kWh eta 4.115,96€ aurreztuko dira urtero. Proiektu hau Udalaren hitzetan 5 urtetan bera bakarrik amortizatzen da ingurugiroari egiten zaion mesedez gain. Gainera IDAE-EEE/EVE erakundeak 2006an aurkeztutako programaren dirulaguntza ere jaso du proiektu honek eta inbertsioaren %40 diruz lagundu du.

Aurtengotik aurrera Beasingo udalerriak errespetu handiagoz begiratuko dio ingurugiroari proiektu hau ez baita bere hometan amaitzen. IDAE-EEE/EVE erakundeak 2007rako aurkeztu den programaren dirulaguntza berriei esker herriko bidegurutze guztietako argiteria ere led teknologiarara aldatuko baita.

> 5,45 urtetan amortizatzen da

> 10 urtetan 35 kotxeren kutsadura ezabatuko da

> akumulatutako aurrezkia gero eta handiagoa izango da gastua gaituz

> amortizazioa eta gero aurrezkia handiagoa izango da urtetik urtera



laister berri

LIBURU AZOKA

Aurten ere, euskarazko produktuak liburu-dendatik kalera ateratzeko prest da Udala. Abenduaren 14tik 16ra, karpia handi bat jarriko da Gernika pasealekuko frontoi txikian eta hortxe izango dira herritar guztiei zuzendutako euskarazko liburuak, diskoak, mahi-jokoak, filmak,... Produktu horiek % 10eko beharapena izango dute.

Liburu azoka antolatzeko beharrezkoa izan da herriko hainbat eragileren lana ere: Mirentxu liburudenda, Rural Kuttia, Bareak dendarien elkarteak, AEK, Hitzak,... Gainera, hainbat ekitaldi osatutako egitaraua osatu da, esaterako, abenduaren 14an arratsaldeko 7etan "Atondu" jantzearen garrantzia agerian jartzen duen liburuak aurkeztuko digu Ane Albisuk Udaletxeko Batzar Aretan. Horretaz gain, Bareak elkarteak hainbat erosketa-bale banatuko ditu azokara hurbiltzen direnen artean.

Era berean, laster izango da produktu horiek guztiak biltzen dituen katalogoa 16 urte bitarteko haur eta gazteen etxetan.



Katalogoaren helburuak hauexek dira:

1. Gurasoei ikusaraztea euskaraz eskolaratzearekin bakarrik ez dela ziurtatzen haurra euskaldun oso izango denik, alegia haurraren aisialdia oso garrantzitsua dela euskara bereganatzeko.
2. Gurasoei aditzera ematea aukera handiak daudela haurrari euskal heziketa emateko, nahiz eta haiek euskaraz ez jakin.
3. Haur eta gaztetxoek aisialdiko euskarazko produktuen eskaintza ezagutzera ematea.
4. Euskarazko produktuen eskaera ugaltzea, merkatua dinamizatuz eta indartuz.

laister berri

GABONETAKO HAUR PARKEA

Aurreko urteetako ohiturarekin jarraituz aurten ere haur gaztetxoek gabonetako haur-parkean gozatzeko aukera paregabea izango dute. Iazko eskaintza zabalduz, aurten bost egunetan izango dute zabalik. Abenduaren 26tik 30era.

Baina ez da hau aurten nabaritu daitekeen hobekuntza bakarra, ikuskizunak ere izango dira oraingoan, pailazoak, txotxongiloak, diskoteka, eta tripa bete eta berotzeko txokolate jana esaterako.

Guztionean batera haur ludoteka, tailer gunea, jolas gunea (betiko josalak, ahe elastikoa, trebetasun ibilbidea), puzgarriak... izango dira.



An tzizar polikirold egiko frontoian.

Abenduak 26tik 30era.

-11:00etatik 13:00etara.

-16:00etatik 19:00etara.

26ean: 18:00etan.

Kixka taldea. Txotxongilo antzerkia.

28an: 18:00etan.

Diskoteka mugikorra.

30ean: 18:00etan.

Kiki eta Moko pailazoak.



J.C. Perez mutrikuarrak, betidanik musika eta literaturari lotuta ibili denak, garai berri bati hasiera eman zion ikasle bezala Bilbora iritsi zenean. Orduan sortu zuen **ITOIZ**, 1978 eta 1988 urte bitartean arrakasta izugarria izan zuen taldea, jirak, zazpi disko... Ezin ezagunagoak diren "**Lau teilatu**", "**Hegal egiten**"... abestien egileak.

1994an lehenengo bakarkako lana egin zuen, "**Atlantic River**", berak idatzi eta interpretatutako abestiekin. Eta 1996an bigarrena editatu zuen, "**Hau Berua**" izeneko.

"**Hiriko istorioak - JC PEREZ live**" (2006) lanarekin, zuzeneko erreperorioaren sonoritatea zaintzeko asmoz, estudioan zuzenean grabaturiko disko pertsonal bat dakarkigu JC Perezek. Aurreko diskoetako zenbait abestiz gain, inoiz argitara eman gabeko hiruzpalau kantu eta **ITOIZ**en garaiko "**Astelehen urdin baten**" (1978) abestia birmoldatu ditu, pop-rock estilotik aldendu eta jazz formaziora gerturatuz. **Fernan Irazoki** (bateria), **Chris Kase** (tronpeta), **Gonzalo Tejada** (kontrabaxua), **Andrzej Olejniczak** (saxoa) eta **Alberto Urretxo** (tronboia) ditu abentura berri honetan bidelagun.

Honekin disfrutatzeko aukera paregabea izango dugu abenduaren 21ean, ostirala, Usurbe Antzokian. Sarrerak aldez aurretik egongo dira salgai bertan.


PARIS JE TAIME

Abenduak 13,
osteguna
Zuzendari askoren artean



TIME

Abenduak 20,
osteguna
Zuzendaria:
Kim Ki-duk.



Parisen maitasuna nonahi da: bere taberna eta kafetegietan, Eiffel Dorrearen azpian eta baita bere kaleen azpitik doan Metroan ere. "Paris, j'et'aime" lanean sekula ez bezala ikusiko duzu hiria. Munduko zuzendari txalotuenerako batzuen begiekin ikusitako Paris da. Hiriko auzo ezberdinetan kokaturiko historio bat kontatu zezan gonbita egin zitzaion bakoitzari. Emaitza istorioen kaleidoskopio bat da: poza, banaketak, elkartzeko bitxiak eta ezustekoak ageri dira bertan.

Seh-hee eta Ji-woo bikote zoriontsua dira. Bi urte daramatzate elkarrekin. Hala ere, neskak pentsatzen du denborarekin mutilak harremana utziko duela. Jeloskortasunak jota, egun batean desagertu eta kirurgia estetikoak egitera joango da. Medikuek horrela oso polita dagoela esan harren aurpegia erabat aldatuko du, ustez galtzearen maitasuna berreskuratu nahian. Mutilak hasieran ez du ezagutuko...